

Urtekarria

2014ko kultur kronika, entsegu bat

Entsegu, saioa edo ahalegina, batez ere, osoa izango ez delako. Hau da, hemen irakurri dezakeguna gure herrian izan diren kultura ekintza batzuk besterik ez dira, nik neuk ikusi, entzun edo jarraitu ditudanak. Nik neuk hobestu ditudanak, baina pontifikatzeko asmo barik.




Euskaraz, bestela ez gara

Urtea sendo eta, aldi berean, garrantz hasi zen. Udalak otsailaren 22rako, zapatua, hiru punta puntako pentsalari ekarri zituen Kultur Etxera euskararen gainean bakoitzak bere hausnarketak jarri zituzan bertara hurbildu ginenon belarrietan. Euskaraz, bestela ez gara. Fermin Etxegoien (idazlea eta irratia esataria), Jon Sarasua (unibertsitateko irakaslea eta iaz *Hiztunpolis*a liburua kale-ratua) eta Joxerra Gartzia (unibertsitateko irakaslea eta idazlea).

Sendo eta garrantz hasi zela esan dut. Sendo hirurak hiruretara ere euskararen gaur egungo egoerari gogoeta asko eman diotenak direlako eta garrantz han entzun zirenak, denok sumatzen ditugunak, ez zirelako inor poztekoak izan. Euskara ahul dago, gain beheran, geroz eta erdaldunagoa, seguru asko geroz eta bere premia gutxiagoan bizi garelako euskaldunok. Gure inguru euskaldun honetan, Arkadia txiki honetan, hori berori begi bistan ikusten badugu, zer ez ote da gertatzen Euskal Herriko gainerako lurretan. Bidea aurkitu behar diogu euskarari berandu baino lehen, osterantzean gureak egin du.

Esandakoa ez da pesimismo ontologiko baten isla; gerta litekeena besterik ez da. Geure esku dago aldatzea, bideratzea. Geure esku, ez besteek egin behar luketenaren faltan.



Una arquitectura para la música: el kiosco


Hitzaldiekin jarraituz, uztailearen 31n, udal areto nagusian, Iñaki Uriartek, aurten Lekeitioko plazako kioskoak mendeurrena betetzen duela aitzakia moduan hartuz, "Una arquitectura para la música: el kiosco" hitzaldia eman zuen. Uriarte arkitekto ezaguna, besteak beste, gure ondare arkitektonikoaren babesle sutsua delako. Bere prentsa artikuluak gure artean, Euskal Herrian, egin izan diren arkitekturaren kontrako bidegabekeriak salatzen zenbatezina dira, sarritan, sarriegitan, zoritzarrez

salaketa egin eta, horretan ardura dutenek inongo kasurik egin barik, horretan gelditu direlako Uriarteren ahaleginak, inongo arrakastarik gabe. Gurean azken hamarkadetan, demokrazia indarrean dagola, galdu dena ikaragarria izan da.

Lekeitiara ekarri zuena arkitekturan elementu txikia den, baina ez horregatik garrantzirik ez duena, kioskoa izan zen, hain zuzen ere. Kioskoa eta bere funtzioa, musika egiteko lekua, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Musikaren inguruan gizakiok gure hartu-eman sozial garrantzitsuak burutzen ditugulako.

Uriartek, hitzaldian, kioskoaren historia arkitektonikoa eman zigun eta, batez ere, Euskal Herrian diren hainbat eta hainbat kioskoen berri. Hauen artean, *plaza de agua* izendatu zituen itsasertzean dauden plazetan kokatuta dauden kioskoen gainean sakonduz. Plaza hauek duten bailio arkitektonikoak eta paisajistikoak nabarmendu zituen eta espazio hauetan kioskoak duen garrantzia azpimarratu.

Albiste adituen artean ez da berria, aurten publiko egin da, baina aurkikuntza 2012an egin zen. Ikaragarria ez da bakarrik zientzia eta arte aldetik, sinestezina ere bada margook aurretik inork ez ikustea. Guk, horretan adituak ez gare-nok, ez ikustea da bat, baina arkeologo ospetsuak horrenbeste izenda Garratxan, zelan ez zuten orain arte ikusi? Zelanbait esateko "akats" honek azalpena badu, baina hona ekarri nahi dudana Diego Garate eta Joseba Riosen aurkikuntza bera da. Orain arte ezagutzen genituen horma-pinturen kopurua handitzen doa eta gurea multzo horretan sartzen da. Ez bedi azkena izan.



Lumentzako kobako horma-pinturak

Hitzaldien sail honetan sartu dut deskubrimendu hau, nahiz eta kontu honek, berak berez, kronika honen zati bat barik aldirikari honetako hainbat orrialde merezi. Hitzaldietan sartu dut nonbait sartu behar nuelako eta aurkikuntza handi (eta handi diodanean ez da lekeitiarkeri bat) honen aitzakian berbaldu bi izan ditugulako urtean zehar.

Azpimarratzekoa jendearen erantzun ezin hobea Lumentzako (Lekeition Garratxa) pinturen gainean antolatu ziren hitzaldi bietan, herrian egin zen aurkezpenekoa eta Ondare Jardunaldien barruan egin zena. Aurre-historiako klaseak lixa-papera baino lakarragoak izaten dakite eta hau, azken baten, aurre-historia da. Ba jendeak orduak eman zituen adituen azalpenak entzuten. Milaka urtetan hor egon diren zaldi eta bisonteen margoak luzaroan bertan mantentzeko balio dezala interes horrek. Izan ere, Garratxako kobak hamaikaxo bider sufritu baitu furtibo "basa piztien" erpekada onartezinak. Babestu dagigun altxor hau.

Honen berri gehiago jakiteko 2013ko *Kobie* aldizkaria, 32. zenbakia. Interneten ikusi daiteke.



Kale antzerkia

25.ez burutu da aurten Lekeitioko Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdia. Aurten uztailearen 11tik 13ra bitartean izan da. 25. edizioa izaki prentsan ez dira falta izan Imanol Agirreri, hasieratik Jaialdiaren zuzendaria, egindako elkarrizketak urteotan kale antzerkiak gurean izan dituen gora-beheren gainean hainbat galdera egin eta erantzunez. Baina horretaz gain,

beste behin ere, ikusi izan dena da Lekeition uztaileko asteburu horrek mugitzen duen guztia. Batetik, antzerki konpainiak eta beraien lanak, eta hauen artean apropos Lekeitiarako egindakoak, eta, bestetik, ikusleak. Haiek 13 lan izan dira aurten, euron artean 3 espresuki Lekeitiarako eginak *Itsaslaboa*. *Txoriak: Zoroen itsasoa*, Dantzas konpainia garaikideak egina; *Danbor talka* Frantziako Les Commandos Percu eta bertoko Deabru beltzak taldeak sortua eta *Gure musikari handiak*. *Aupa Maurizia!* Oreaka TX eta Kukubiltxok prestatua. Antolatzaileek 25.000 lagun zenbatu dituzte 13 emanaldietan, dantzaz, suaz, perkusioaz, animazioaz, clownez, zirkuaz eta beste era batzuetan adierazten den kale antzerkiak gozatzeko.



Itxas Soinua

Kale Antzerkiak 25 urte bete baditu aurten, Lekeitioko Itxas Soinua Nazioarteko Musikaldia 36. edizioa burutu du, abuztuaren 13tik 17ra bitartean. Zuzenean musika klasiakoak gozatzeko parada ezin hobea, baita musikari gazteak trebatzeko bitarteko aproposa ere, Beheko eliza marko hartuta. Baina gazteez gain, artista kontsagratuak, orkestra handia

eta jazz entzuteko parada ere izan da aurten. Hala, bertan izan ditugu Bilboko Orkestra Sinfonikoa (Iker Sanchez zuzendaria), La Ritirata (Josetxu Obregon zuzendaria), Joshua Edelmanen Manhattan Bilbo Jazz-zubia proiektua, Euskadi Brass eta amaitzeko, Iñaki Salvadorrek, Olatz Saituak eta Ainhoa Zubillagak emandako Tomas Garbizu eta Salvador beraren abestiak.



Euskal Zine Bilerak

Hauxe dugu gure jaialdi beterranoena, 37.a aurten. Urrun daude 8 eta super 8ko pelikularak erakusteko Benito Ansolak eta Jose Luis de la Torrek izan zuten burutazio haren lehen edizioa. Urteotan zenbat pelikula, bideo eta beste euskarri batzuetan egindako ikus-entzunezko eman ote dira Lekeitioko Euskal Zine Bileran.

Aurten, azaroaren 23tik 29ra bitartean, Ikusgarri aretoan, 48 lan eman dira lehiaketara aurkeztuak. Hauetaz gain, hainbat ekitaldi burutu dira, hasiera eta amaierako ikuskizunak, luzemetrai emanaldiak (hainbat sariz gain, kritika ezin hobek izan dituen Jon Garañoren *Loreak*, umeentzako Maria Ruiz de Austriren *Midas erregearen altxorra* eta Juanjo Elordi eta Asisko Urmenetaren *Gartxot*, Euskal Zinearen Begirada sailean Nestor Basterretxea zendu berriari omenaldia eskainiz Ion Lopez Barrena Euskadiko Filmatetikoko zuzendari-kontserbatzaileari Aitor Abaroak egindako elkarrizketa eta Fernando Larruket eta Basterretxea beraren *Ama Lur* pelikula historikoa). Esan baita ere, azaroaren 29an, goizean ekitaldi mamitsu bi gauzatu zirela. Batetik, mahai inguru bat; gaia Zinema begiratu eta ulertu. Nola?, bertan parte hartu zutela Begoña del Teso kritikariak, Aitor Arregi eta Ane Muñoz, azken biak zinegileak, lehenengoa irakaslea eta bigarrena, kazetaria. Moderatzaile Mikel Garciak egin zuen, zinema kazetaria Argia astekarian. Ondoren, Josu Martinezek, zinegile, ikertzaile eta idazleak, Euskal gatazka politikoa zinearen bitartez gaia jorratu zuen hitzaldia emanez. Amaitzeko epai mahaikoak aipatzea falta da: Juan Bautista Berasategi, zinegilea; Edurne Gonzalez Ibañez, artista bisuala eta irakaslea; Ramon Agirre, aktorea; Mikel Losada, antzezlea eta Kontxa Elorza, irakaslea.

Ez dira hemen amaitzen urtean zehar izan ditugun kultura eskaintzak. Hemen, gorago diodan legez, aipatu ditudanak gurean bakarrik ikusi izan direnak eta, nire ustez, nabarmenenak izan dira. Baina, hauetaz gain, aipatu behar nituen, baita ere, antzerkia (*Hamlet*, *Pankreas*, *Kibubu*, *Itsasoaren emazteak*), kontzertuak, (musika banda eta abar), bertsolariak, dantza, erakusketak eta abar... baina denetarako lekurik ezean, aukeratu egin behar.

Amaitzeko, egunotako albiste bat nabarmendu nahi dut. Resurreccion Maria Azkuekoaren lanak guztiak eskaneatu eta denon eskueran jartzeko bidean ei dabilta, laster internetez, etxetik edo nonahitik ikusteko moduan izateko. Sekulako marka!